

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkidetzaren inguruko esperientziak partekatu dituzte Nafarroak eta Holandako VHTO erakundeak

Hezkuntza kontseilariak Skolae programa aurkeztu dio VHTO erakundeko zuzendariari, Nafarroako gobernuko Hezkuntza departamentuaren hezkidetzaren programaren nagusi gisa, STEM-ikasketekin lotutako gainerako ekintzekin batera

Ostirala, 2018.eko urriak 12

Maria Solana hezkuntza kontseilaria, Hezkuntza zuzendari orokor Roberto Perez eta Ebaluazio, Kalitatea, Formakuntza eta Berdintasuna zerbitzu-zuzendari Aitor Lakasta, VHTO (National Expert Organization On Girls/Women And Science/Technology) erakundeko zuzendari Cocky Booiyekin elkartu dira. Erakunde holandarrak Amsterdamen du egoitza eta hamarkadak daramatza hezkidetzaren



Solana kontseilariak SKOLAE programa aurkeztu dio VHTO erakundeko Cocky Booi zuzendariari.

genero arteko berdintasuna lantzen. Egunotan Holandako hiriburuan egiten ari den IKT eta hezkidetzaren inguruko jardunaldietan da Nafarroako delegazioa eta bidaia baliatu dute VHTOrekin bilera egiteko.

VHTO erakundearen egiteko nagusia emakume eta neskatuen artean STEM ikasketak sustatzea da, Zientziak, Teknologiak, Ingeniaritzak eta Matematikak. Hain justu, ikasketaren arlo horien ezagutzan eta lan-esparruan emakume gutxi aritzen dira eta bai Nafarroako gobernua, bai Holandako agintariak ekintza zehatzak eta plan estrategikoak sustatzen ari dira desberdintasun hori konpentsatzeko.

Erakundearen eta Hezkuntza departamentuko ordezkarien artean izandako bileran hezkidetzaren esperientziak elkartrukatzeko aukera izan dute biek ala biek, puntu asko baitituzte komunean; hala nola, "desberdintasun horiek konpentsatzeko hezkuntza arlotik egiten den lana, irakasleen trebakuntza sustatuz, ikasleei zuzendutako ekintza zuzenak garatuz nahiz aipatutako esparru horietan enpresen parte hartzea sustatzeko lan eginez", adierazi du Solana kontseilariak.

Hala, hezkuntza departamentu-buruak Skolae programa aurkeztu dio VHTOko zuzendariari, "Nafarroako gobernuko Hezkuntza departamentuaren hezkidetzaren programa nagusi gisa", STEM-ikasketekin lotutako gainerako ekintzekin batera: Lanbide Heziketa Plan Estrategikoa eta gobernuaren Planeta-STEM ekintza. Bileran, gainera, etorkizunean ekintza bateratuak egiteko aukeraz aritu dira, genero arteko desberdintasunak murrizteko egiten diren ekintzak hobetze aldera, VHTOko zuzendariak aipatu bezala, "gizarteari berari talentu galera izugarria eragiten baitio".

VHTO erakundeak lau hamarkada daramatza arlo horretan hezkuntza esperientziak praktikan jartzen Holandan eta munduan aitortza handia lortzeaz gainera, erakunde ofizialak, herrialdeko erakunde eta enpresak eta nazioarteko konpainiak inplikatzeari lotu du. Halaber, Nafarroak arlo horretan ibilbide laburragoa badu ere, dagoeneko martxan den SKOLAE programa dauka, estatuan aitzindaria den programa handinahia. Cocky Booi VHTOko zuzendariak oso ondo baloratu du programa, Europar Batasunean diren ekimenen artean argiena, zehatzena eta ulergarrienetako dela esanez. Hezkuntza kontseilariak, bestalde, esperientzia holandarretik ikasteko aukera apartatzat jo du bilera eta eskertu egin du Nafarroako gobernuarekin elkarlanean aritzeko VHTOren prestutasuna.



Ezkerretik eskuinera, Lakasta, Booi, Solana eta Pérez Holandan izandako bileraren ondoren.